

## AKTA

### Udalaren ezohiko eta urgentziazko Osoko Bilkura

**ORGANOA:** Udalbatza  
**DEIALDIA:** Lehenengoa  
**EGUNA:** 2019-07-15 (06)  
**ORDUA:** 08:30 – 09:00  
**LEKUA:** Markina-Xemeingo Udaletxeko bilkura aretoan.

#### **BERTARATUAK:**

Alkatea: Luis Maria Egurrola Arakistain (EAJ/PNV)

Zinegotziak: Alexander Aretxabaleta Egia (EAJ/PNV)  
Lander Fernandez Guenetxea (EAJ/PNV)  
Amaya Maria Larrañaga Ugarte (EAJ/PNV)  
Idoya Arrieta Arregi (EAJ/PNV)  
Luis Maria Malaxetxebarria Elordi (EAJ/PNV)  
Aitor Odiaga Garate (EH BILDU)  
Isa Mandiola Zuazo (EH BILDU)  
Eneko Arrate Sololuze (EH BILDU)  
Leire Markuerkiaga Olabe (EH BILDU)  
Garbiñe Idoeta Baskaran (EH BILDU)

Idazkari eta kontu-hartzailea: Iratxe Rementería Otxandio

#### **AZTERGAIK:**

- 1.- 2019 ekitaldiko aurrekontuaren 5. kreditu-aldaketa onartzea.
- 2.- Bizenta Mogel parkeko (Zelaibari urbanizazioa) obraren 10. ziurtagiria onartzea.
- 3.- Abuztuan kiroldetgia zabaltzea.
- 4.- Eraso matxisten kasuan kontzentrazioak.

Goikoportala 3. 48270 Markina-Xemein. IFK P4807100E. Tlf.: 94 616 74 54 [www.markina-xemein.eus](http://www.markina-xemein.eus) [udala@markina-xemein.eus](mailto:udala@markina-xemein.eus)

Ondoren azaltzen diren gaiak jorrazteko, ezohiko eta urgentziatzko osoko bilkura egitea bozkatu da, udako oporraldiek udalaren funtzionamendua ez moteltzeko helburuarekin.

Udalbatzak aho batez onartu du urgentzia eta ondorengo gaiak jorratuko dira:

### **1.- 2019 EKITALDIKO AURREKONTUAREN 5. KREDITU-ALDAKETA ONARTZEA.**

Kreditu-gaikuntza bat da, toki entitatearen funtzionamendu normalerako beharrezkoak diren hainbat gasturi dagokiona eta diruzaintzaren geldikin likidoarekin finantzatzen da. Horren berri jarraian ematen da:

1660	22799	Hondakin uren ebakuazioa eta tratamendua. Kanpoko lanak. Abesua kaleko estolderiaren partida osatzea	14.689,00 euro
1532	22799	Bide publikoen zolaketa. Kanpoko lanak. Abesua kalea asfaltatzea partida osatzea, estolderia lanak bukatu ostean	20.000,00 euro
3230	62200	Bekobenta eskola. Edifizio eta bestelako eraikinak. Bekobenta eskolako patioko jolasak egokitzeko proiektua	5.974,97 euro
3321	62501	Liburutegia. Altzariak eta bestelakoak. Liburutegiko altzariak berriztatzea: eserlekuak, gordinak eta alfonbrak	3.437,48 euro
1630	62301	Kale-garbiketa. Makinaria. Kale garbiketarako tresneri txikia	2.900,00 euro
9120	10000	Gobernu organoak. Oinarrizko eta bestelako sariak. Alkatearen ordainsariaren partida osatzeko diru kopurua	6.974,00 euro
1510	13001	Hirigintza. Lan-sariak. Brigadako erretena ordaintzeko ordainsaria	6.000,00 euro
4540	21000	Auzo-bideak. Azpiegitura eta ondasun naturalak. Ibazetatik eta Iparragirreko ur biltegira urak eramateko proiektuari gehitzea, Ituarte zaharra baserriaren albona gelditzen den ur putzuaren konponketa	11.850,38 euro
3332	62200	Kultura ekipamenduak. Arretxinaga. Edifizio eta bestelako eraikinak. Arretxinaga 22 eraikinerako ur-toma berri bi (Bilbao Bizkaia Ur Patzuergoak eskatuta)	4.198,16 euro
2313	62200	Gazteria. Edifizioak eta bestelako eraikinak. Gazteleku sarrerako hesia	1.311,64 euro
2313	62501	Gazteria. Altzariak eta bestelakoak. Patrokua jauregiko ikasketa gelarako altzari gehiago erostea	3.650,57 euro
3360	21100	Ondare historikoaren babesa. Edifizioak eta bestelako eraikinak. Xilofagoen kontrako tratamenduaren jarraipena San Kristobal udal ermitan	1.542,75 euro
9120	22799	Gobernu organoak. Kanpoko lanak. Formakuntza politikarientzat Udalbarria prozesua ezartzeko.	7.500,00 euro
9200	22799	Zerbitzu orokorrak. Kanpoko lanak. Formakuntza politikarientzat Udalbarria prozesua martxan jartzeko	7.500,00 euro
3380	48000	Jaiak eta ospakizunak. Familiei. Karmen jaien barruan margo lehiaketako sariak eta esku pelotarako fitzak	2.250,00 euro
3230	62200	Bekobenta eskola. Edifizio eta bestelako eraikinak. Bekobenta eskolako instalazio elektrikoa legezartzeko lanak	7.720,00 euro
2312	48000	Berdintasuna. Familiei. Ekainak 28ko argazki lehiaketako saria.	100,00 euro
1510	22707	Hirigintza. Azterketa lan teknikoak. Arkitektoa. Udal arkitekto aholkulariaren zerbitzuen ordainsaria	18.000,00 euro
3421	21200	Frontoia. Makinaria, instalazioak eta tresneria. Frontoiarekin kanpoko markagailuaren babesa	643,72 euro
9120	22699	Gobernu organoak. Bestelako gastuak. Udal hauteskundeetarako udalak ordaindu behar izan dituen papeletak	1.488,30 euro
1330	22699	Zirkulazio eta aparkalekuen antolamendua. Bestelako gastuak. Trafiko eta aparkalekuen antolamendua burutzeko partida osatzea	15.000,00 euro

Goikoportala 3. 48270 Markina-Xemein. IFK P4807100E. Tlf.: 94 616 74 54 [www.markina-xemein.eus](http://www.markina-xemein.eus) [udala@markina-xemein.eus](mailto:udala@markina-xemein.eus)

1510	62600	Hirigintza. Informazio prozesuetarako ekipamendua. Bulego teknikorako ordenagailua.	1.566,28 euro
1510	64200	Hirigintza. Planeamendua. Sareen inbentarioa burutzen jarraitzeko (argiteria eta ur-hornidura)	14.580,50 euro
3230	62200	Bekobenta eskola. Edifizioa eta bestelako eraikinak. Bekobenta eskoletako patioan jolasak margotzea.	8.167,50 euro
3340	48000	Kultura sustatu eta bultzatu. Trikitixa sariak	200,00 euro
<b>GASTUAK</b>			<b>167.245,25 euro</b>

### DIRU-SARREREN AURREKONTUA

87001 Diruzaintza geldikin orokorra 167.245,25 euro

Finantza-iturritzat diruzaintza nagusiko soberakin erabiltzen denean eta ikusita zorraren helburua betetzen dela, idazkari eta kontu-hartzaileak txosten bat egin beharko du finantzaturako gastuek udalaren finantza-jasangarritasuna arriskuan jartzen ez dutela azaltzeko. Hori horrela, gastu hauek ez dira kontuan hartuko ez defizitaren helburua baloratzerakoan ez gastu-araua betetzerakoan. Txosten hau Osoko Bilkurara ekarri da Udalbatza jakinaren gainean egoteko eta, ondoren, Bizkaiko Foru Aldundira bidaliko da Osoko Bilkuraren aktarekin batera.

Azaldutako guztia aztertu eta gero, Udalbatzak hauxe erabaki du aho batez:

- 1) Aurkeztutako aldaketa onartzea, kontu-hartzailearen txostenarekin batera eta indarrean dagoen arautegiaren arabera Bizkaiko Aldizkari Ofizialera dagokion iragarkiak bidaltzea.
- 2) Erabakia Arlo Ekonomikoari jakinarazteko agindua ematea, espedientean jaso dezan.
- 3) Bizkaiko Foru Aldundiari erabaki honen berri ematea, kontu-hartzaileak idatzitako txostenarekin batera.

### 2.- BIZENTA MOGEL PARKEKO (ZELAIBARRI URBANIZAZIOA) OBRAREN 10. ZIURTAGIRIA ONARTZEA.

4201 – 2017/34\_Signat. 2297.1

Iazko urtean Zelaibarriko urbanizazio lanak lizitaziora atera ziren. Iderraga-Ituarte 19 U.A. urbanizazioaren zati bat da. Aipatutako obra honek 1.541.660,90 euroko lizitazio aurrekontua zeukan. Guztira sei enpresa aurkeztu ziren eta prozedura irekia jarraitu zen.

Lizitazio prozesuaren ondoren Kontratazio Mahaiak gainerako esleipendunak prozesuak kanpo uztea erabaki zuen eskatutako gutxieneko puntuazioa lortu ez izanagatik, eta URRE SA enpresa esleitzea erabaki zuen 1.278.759,44 euroko zenbatekoarekin.

Subjektu pasiboaren inbertsioa aukeratu zen, obra BEZ gabe fakturatuz. Obra hau 2018ko martxoaren 15eko osoko bilkuran adjudikatu zen.

Obraren lehenengo fasea uda hasieran amaitu zen, eta momentu honetan bigarren fasea gauzatzen ari da.

Ondorengo ziurtagiria aurkezten da beraren berrespen eta onarpenerako:

---

Goikoportala 3. 48270 Markina-Xemein. IFK P4807100E. Tlf.: 94 616 74 54 [www.markina-xemein.eus](http://www.markina-xemein.eus) [udala@markina-xemein.eus](mailto:udala@markina-xemein.eus)

- Urre SA, 219.367,95 euroko zenbatekoarekin, 10. ziurtagiria onartzeko (subjektu pasiboaren inbertsioa aplikatu denez, BEZ gabe).
- Injelan SL, 5.864,65 euroko zenbatekoarekin, BEZ barne, obra zuzendaritzari dagokiona.

Udalbatzak azaldutakoa aztertuta aho batez ondorengo onartzen du:

- 1) Aurkeztutako ziurtagiria onartzea eta berrestea.
- 2) Arlo ekonomikoari akordio honen berri ematea.
- 3) Akordio hau Urre SA eta Injelan SL enpresako ordezkariari jakinaraztea.

### **3.- ABUZTUAN KIROLDEGIA ZABALTZEA.**

Alkateak udalbatzari planteatu dio kiroldergia udaran hamabost egun ireki edo ez zabaltzearen inguruko gaia. Bertako langileek helarazi dutenaren arabera ez du merezi; iazko urtean zabaldu zen lehen aldiz eta mila euroko diru-sarrerak egon ziren; ostera, zerbitzu hori eskaintzeak hamabost mila euroko kostua sortu zuen.

Gaia eztabaidatu da eta ondorengoak jorratu dira: adinaren eta profilararen arabera zeintzuk diren erabiltzaileak, Ondarroako eta Lekeitioko kiroldegietara joateko duten aukera – langileen irizpideen arabera –, geldialdi teknikoa hamabost egun baino handiagoa izatearen beharra eta tarte horretan irekitzeak sortuko lukeen dirua beharrezkoak diren konponketetan erabiltzearen aukera.

Ez da zehazki ezer erabaki eta aste honetan Alkatea, udal aparejadorearekin batera, kiroldegiko arduradunekin eta langileekin bilduko da, zer egin daitekeen ikusteko.

### **4.- ERASO MATXISTEN KASUAN KONTZENTRAZIOAK.**


Gai hau jorratzen da eta orain arte erabilitako irizpide berdinekin jarraituko dela adierazten da. Kontzentrazio gehiago egitearen beharrik ez izatearen nahiarekin, baina tamalez horrelako gertakariren bat suertatzen denerako, Euskal Herria lurralde-eremua kontuan hartuta egingo dira.

Goikoportala 3. 48270 Markina-Xemein. IFK P4807100E. Tlf.: 94 616 74 54 [www.markina-xemein.eus](http://www.markina-xemein.eus) [udala@markina-xemein.eus](mailto:udala@markina-xemein.eus)

ETA BESTERIK EZ AZTERTZEKO, ALKATEAK AMAITUTZAT EMAN DU BATZARRA, 09:00ETAN, ETA UDALEKO IDAZKARI ETA KONTU-HARTZAILE NAIZEN HONEK HAN ESAN ETA ERABAKITAKO GUZTIAREN FEDE EMAN DUT.

ALKATE-UDALBURUA,


Luis Maria Egurrola Arakistain



markina-xemein  
udala

IDAZKARI ETA KONTU-HARTZAILEA,

Iratxe Rementería Otxandio



markina-xemein  
udala